

ANDER
DEVNA

IKASTOLA



**Ander Deuna Ikastola
Irakaskuntza-Kooperatibaren
Barne-Araudia**

ANDER DEVNÄ

iKASTOLA



AURKIBIDEA

3.orrialdea

1.atala	Sarrerakoa	5.orrialdea
1.atalburua	Batzar Nagusiaren jaurpidea	6.orrialdea
2.atala	Batzar Nagusiaren jarduera	6.orrialdea
3.atala	Erabakiak hartzeko modua.	6.orrialdea
4.atala	Bozketarako mahaia	7.orrialdea
5.atala	Batzar Nagusiaren erabakiak indarrean	7.orrialdea
6.atala		8.orrialdea
2.atalburua	Zuzendaritza-Kontseiluaren hautaketa	9.orrialdea
7.atala	Zuzendaritza-Kontseiluaren osaketa eta aukeraketa	9.orrialdea
8.atala	Hautetsiak eta hautagaiak	9.orrialdea
9.atala	Hautagaien aurkezpena	9.orrialdea
10.atala	Hautagai-zerrendaren aldarrikapena	10.orrialdea
11.atala	Bozketa eta hautaketa	10.orrialdea
12.atala	Aldez aurretiko kargu-uztea	11.orrialdea
3.atalburua	Zuzendaritza-Kontseiluaren antolaketa	12.orrialdea
13.atala	Zuzendaritza-Kontseiluaren osaketa	12.orrialdea
14.atala	Ardura-banaketa	12.orrialdea
15.atala	Bilera-aldizkakotasuna	12.orrialdea
16.atala	Talde iraunkorra	13.orrialdea
17.atala	Zuzendaritza-Kontseiluaren lan-batzordeak	13.orrialdea
18.atala	Zuzendaritza-Kontseiluaren ordezkari-tza Gestio-Batzordean	13.orrialdea
19.atala	Bateraezintasunak	14.orrialdea
4.atalburua	Zuzendaritza, izendapena eta uztea	15.orrialdea
20.atala	Zuzendaritza-taldea	15.orrialdea
21.atala	Zuzendari orokorraren hautaketa	15.orrialdea
22.atala	Hautaketarako prozedura	16.orrialdea
23.atala	Iraupena	16.orrialdea
24.atala	Kargu-uztea	16.orrialdea
25.atala	Betebeharrak	17.orrialdea

26.atala	Administraria	17.orrialdea
27.atala	Bateraezintasunak	17.orrialdea
5.atalburua	Giza-diziplinarako jaurpidea	18.orrialdea
28.atala	Oinarri orokorra	18.orrialdea
29.atala	Hutsegiteak	18.orrialdea
30.atala	Zigorak	18.orrialdea
31.atala	Zigorak ezartzeko prozedura	18.orrialdea
6.atalburua	Gestio-Batzordea	20.orrialdea
32.atala	Oinarri orokorra	20.orrialdea
33.atala	Gestio-Batzordearen zereginak	20.orrialdea
34.atala	Osaketa	21.orrialdea
35.atala	Hautaketarako prozedura	22.orrialdea
36.atala	Ardura-banaketa	24.orrialdea
37.atala	Funtzionamendua	24.orrialdea
7.atalburua	Gurasoen Batzordea	26.orrialdea
38.atala	Oinarria	26.orrialdea
39.atala	Zereginak	26.orrialdea
40.atala	Hautaketarako prozedura	27.orrialdea
41.atala	Funtzionamendua	27.orrialdea
Gehigarritzko xedapenak		29.orrialdea
Eranskina	Administrariaren zereginak.	30.orrialdea

1.atala.- Kooperatiba Elkartek honen 23. atala eta III. atalburuko ondorengoak, Kooperatiben Legea edo/eta beste batzuk Ikastolako Organo ezberdinen osaketa eta funtzionamendurako oinarri dira:

- Batzar Nagusia.
- Zuzendaritza-Kontseilua.
- Zaintza-Batzordea.
- Gestio-Batzordea.

Ondorioz, Araudi honen helburu nagusia Gestio-Organoen jardueraren alderdi batzuen funtzionamendua araupetzea da, Batzar Nagusia, Zuzendaritza-Kontseilua eta Gestio-Batzordearena hain zuzen. Osagarri gisa, Gurasoen Batzordea eta Zuzendaritza-taldeari dagokien araudia ere burutuko dugu.

IKASTOLA



I. ATALBURUA.-

BATZAR NAGUSIAREN JAURPIDEA

2.atala.- Batzar Nagusiaren jarduera

1.- Zaintza-Batzordeak edo honek izendaturiko kideek bazkideen eta bazkide ordezkatuaren parte-hartzea Batzar Nagusian kontrolatu egingo lukete, parte hartzeko egon litezkeen zalantzak eta galderak erabakiz, eta ordezkaritza-inprimakien egokitasuna gainbegiratzuz eta aztertuz.

2.- Ondoren Batzar Nagusiaren Gai-ordena garatuko da, honetarako deialdiak aurreikusitako gaiak gauzatzuz. Zuzendaritza-Kontseiluko presidentearen edo Kontseiluaren beraren inizatibaz Gai-ordenaren bilakaera eta gai-aurrekepena aldatu ahalko da, edonola horrek aurreikusten zituen gaiak errespetatuz. Gai-zerrendan jaso gabeko gaiei buruzko erabakiak baliorik gabekoak izango dira, Legeak berariaz dena delako akordioa hartzea baimentzen duen kasuetan izan ezik.

3.atala.- Erabakiak hartzeko modua

1.- Batzar Nagusiaren gaiak bozketaz edo aho batez erabaki ahalko dira.

2.- Erabakiak aho batez hartuko dira baldin eta Batzar Nagusian bozkatu beharreko gaiak erabateko adostasuna badago.

3.- Batzar Nagusiko kideren batek eskatuko balu, aztertu beharreko gaiari buruzko bozketa egingo litzateke. Bozketa isilean zein eskua jasota eman ahalko da.

4.- Isilpeko bozketa Zuzendaritza-Kontseiluak edo Batzarrean ordezkaturik eta bertan dauden erabiltzaile edo lan-bazkideen % 10ak honela eskatzen badu. Ikastolako Gobernu-Organoak aukeratzeko edo Estatutuen 24.3 f, g eta h ataleko gaietarako isilpeko bozketa derrigorrezkoa izango da.

5.- Kooperatibaren jarraipenerako funtsezkoak diren gaiei buruzko bozketetan, bazkideak banan banan deituak izan ahalko dira, baldin eta

Zuzendaritza-Kontseiluak edo bertan dauden bazkideen % 15ak honela eskatzen badute.

6.- Lan-bazkideen eta erabiltzaile bazkideen botoak ontzi ezberdinetan jarriko dira. Batzar Nagusia Estatutuen 26.2 atalaren arabera legez osatzen denez geroztik bazkidego-mota bakoitza botoen % 50ren titularra izango da. Bozketa-emaitzak Batzarrean ordezkaturik eta bertan dagoen bazkide-kopuruaren araberako ponderazioaren ondorioz gauzatuko dira, beti ere Batzarrean dauden lan-bazkide kopurua kontuan hartuz.

7.- Bazkide batzuek idatziz beste batzuei eman ahalko diete ordezkotza, batzar bakoitzerako berezia izango den idatzi baten bidez. Batzar unibertsalaren kasuan, ordezkotza ematen den idatzian aurreikusitako gai-zerrenda ere jaso beharko da. Bazkideek ezin izango dute, bakoitzak bereaz gainera, bi ordezkotza baino gehiagorik izan. Ordezkotza ezeztatu egin daiteke. Ordezkaturikoa Batzar Nagusira baldin badao, balioa kenduko dio ordezkotzari.

4.atala.- Bozketarako mahaia

1.- Zaintza-Batzordeak osatuko du, idazkari gisa Zuzendaritza-Kontseilukoa arituko delarik.

2.- Bozketa bakoitzean bete beharreko legezko zeregin guztiak gauzatzeaz gain, botoak zenbatu, bozketako emaitzak agirian jaso eta hauek Batzarrari jakinarazi egingo dio.

5.atala.- Batzar Nagusiaren erabakiak indarrean

Batzar Nagusiak harturiko erabakiak berehala edo berak erabakitako epeetan indarrean jarriko dira, Estatutuek bereziki aurreikusten dituenak izan ezik.

6.atala

Barne-Araudiak aurreikusten ez dituen arlo eta gai guztietan Kooperatibaren Estatutuen 24.- 29. bitarteko atalek diotena derrigorrezkoa izango da.

II. ATALBURUA.-

ZUZENDARITZA-KONTSEILUAREN HAUTAKETA

7.atala.- Zuzendaritza-Kontseiluaren osaketa eta hautaketa

1.- Zuzendaritza-Kontseiluak 12 kide izango ditu, lan eta erabiltzaile-bazkideak ordezkatzuz. Bere barnean Presidentea, Presidente-ordea, Diruzaina eta Idazkaria aukeratuko ditu.

2.- Batzar Nagusiak Zuzendaritza-Kontseiluko kideak isilpeko bozketaz aukeratuko ditu. Lau urteko eperako aukeratuak izango dira; berriztapena zatika egingo da, kidego erdia bi urtero, behin eta berriz hautatuak izan ahalko direlarik. Kide berriek beren ardura onartu arte administratzaileek lanean jarraituko dute. Beren izendapenarekin batera hiru ordezeko aukeratuko dira. Behin betiko hutsunea emanaz gero, ordezekoek titularrak ordezkatzeko dituzte, Estatutuen arabera hauei gelditzen zaien epea betez.

8.atala.- Hautetsiak eta hautagaiak

Kooperatibako bazkide guztiek Zuzendaritza-Kontseiluaren hautaketan parte hartu ahalko dute, Barne-Araudia edo Estatutuen ezarpenaren ondorioz bozketa-ahalmenik ez duten bazkideak izan ezik. Kooperatiba Bateratzailearen lehen Zuzendaritza-Kontseilua osatzen denetik aurrera, Estatutuek eta Barne-Araudi honen baldintzak betetzen dituzten bazkide guztiak hautagaiak izango dira, Estatutuen 31.3 atalak alboratzen dituenak izan ezik. Bazkideak hautatzeko Batzar Nagusiak Ikastolako lan-batzorde edo/eta ordezkotza-organo batean parte hartu izana eta euskararen ezagutza kontuan hartuko ditu, Kooperatibako bazkideak urte batekoa baino luzeagoa komenigarria dela iritziz.

9.atala.- Hautagaien aurkezpena

1.- Zuzendaritza-Kontseiluak Batzar Nagusirako deialdia eta hautatu behar diren administratzaile-kopurua finkatu ondoren, hautagaiak aurkezteko 10 eguneko

epea zabalduko da. Ekimen hau bazkide bakoitzak edo bazkide talde batek gauzatu ahalko du.

2.- Lan bazkideen ordezkariak langile-estamentu biak besarkatuko ditu (dozenteak eta ez-dozenteak). Dozenteenak etapa guztietakoak izango dira (Haur Heziketa, Lehen Heziketa, Bigarren Heziketa eta Batxilergoa), etapa guztietako langileen ordezkariak Zuzendaritza-Kontseiluan egon daitezen.

3.- Hautagai-kopurua eta Zuzendaritza-Batzorderako hautatu beharreko kopurua berdinak izango dira, beste horrenbeste ere ordezeko gisa hautatuz.

4.- Ondoren gaia honi buruzko kontsulta, eztabaida eta proposamenak egiteko epea zabalduko da. Era honetara, Zuzendaritza-Batzordeak, proposaturiko hautagaiekin batera. Batzar Nagusiak hautatu behar duen hautagai zerrenda edo zerrendak kudeatuko ditu (baldintza berdinetan). Xehetarako 10 eguneko epea izango du. Zeregin honetan adostasun zabala eskuratzea helburu eta iparra izan behar dira. Prozesu honen ondoren, Batzar Nagusiak, Estatutuek ematen duten ahalmenaren arabera, Zuzendaritza-Kontseiluko kideak aukeratuko ditu.

10.atala.- Hautagai-zerrendaren aldarrikapena

Zuzendaritza-Kontseiluak gutxienez Batzar Nagusia egin baino astebete lehenago, bozkatu beharreko hautagai-zerrenda edo zerrendak aldarrikatuko ditu. Zerrendetako hautagai-kopuruak 9.3 atalak adierazten duen gutxiengo kopurua ez badu betetzen, beharreko kopurua bete arte Zuzendaritza-Kontseiluak hautagaiak proposatu ahalko ditu.

11.atala.- Bozketa eta hautaketa

1.- Batzarrean bertan edo ordezkaturik dagoen bazkide bakoitzak (bazkidego mota alde batera utzirik) bozkatzen den edozein zerrendari eman ahalko dio.

2.- Boto gehien lortzen duen zerrenda titularra izango da, honelaxe aldarrikatuz. Zuzendaritza-Kontseiluko kideen izendapena hauxe onartzen duen unean indarrean jarriko da eta 30 egunetako epean Euskadiko Kooperatiben Erroldan legeztatua izateko aurkeztuko da. Kargu-uztea indarrean jarriko da Kooperatiben Erroldan izena ematen den unean.

3.- Bozketetako emaitzak (hautaketa batean edo Kooperatibaren edozein batzarrean ematen direnak) bertan dauden bazkideei momentuan jakinaraziko zaie eta bazkide guztiei Batzarra egiten denetik 15 egunetako epean.

4.- Erantzukizuna ez onartzea, gainontzeko administratzaileen ustez justifikatu gabeko uztea edo axolagabekeria bere ekimenean falta larritzat hartuko da, Kooperatibaren Estatutuek aurreikusten dituzten zigorrak ezarriz.

12.atala.- Aldez aurretiko kargu-uztea

Lan-utzialdia, bazkidezari uztea, falta oso larria edo/eta Estatutuetan eta Barne-Araudian jasotzen diren zioen ondorioz, Zuzendaritza-Kontseiluko kideei berehalako kargu-uztea ezarriko zaie, lan-utzialdia gertatu, bazkidezari utzi edo/eta Batzar Nagusiak erabaki hau hartzen duen unean (azken erabakia falta oso larria ematen denean), beti ere bazkide hauen eskubideak eta Estatutuetan agertzen den zigorrak ezartzeko prozedura zainduz eta betez.

IKASTOLA



III. ATALBURUA.-

ZUZENDARITZA-KONTSEILUAREN ANTOLAKETA

13.atala.- Zuzendaritza-Kontseiluaren osaketa

Batzar Nagusiak hautatu eta ondorengo lehen bileran Zuzendaritza-Kontseiluak gutxienez jarraiko ardurak banatuko ditu: Presidentea, Presidente-ordea, Diruzaina eta Idazkaria.

Presidentea eta Presidente-ordearen kasuan, ardura horiek suposatzen dituzten zereginak kontuan hartuz, euskararen ezagutza bereziki baloratua izango da.

Ardura hauek guztiak izendatu ahal izateko Kontseiluko kideen bi herenak aldeko botoa eman beharko du. Lehen bi bileretan honelako gehiengora ez bada heltzen, ez ohiko bilera bat egingo da non erabateko gehiengoaz erabaki ahalko den.

Honela ere ez balitz lortuko, kiderik zaharrena Presidente izendatua izango da, harik eta aurreko pasarteetan aipatutako gehiengoa eskuratu arte.

14.atala.- Ardura-banaketa

Era guztietara, Presidentea/Presidente-ordea edo/eta Diruzaina/Idazkaria ardurak lan edo erabiltzaile-bazkideen esku geldituko dira, bazkide-mota bi hauen artean ordezkari-orekatua eskuratzen saiatuko direlarik.

15.- Bilera-aldizkakotasuna

Zuzendaritza-Kontseilua gutxienez hilean behin batzartuko da, Kooperatibaren jardura etenik dagoen hileetan izan ezik, Presidentearen edo bazkidego-mota bakoitzeko (lan edo erabiltzaile bazkideak) ordezkari-kopuruaren herenaren iniziatibaz. Bere ahalmenetan agertzen diren zereginak eguneko gai-zerrendan azaldu eta erabaki ahalko dira.

16.atala.- Talde Iraunkorra

Arintasunez eta efikaziaz jarduteko Zuzendaritza-Kontseiluak bere baitan Talde Iraunkorra aukeratu ahalko du, besteak beste, honelako zereginei helduz:

- berehalako gai era erabakiei aurre egitea (datozen 72 orduetan erabaki beharrekoak eta Zuzendaritza-Kontseiluak bere osotasunean ez ohiko bilera batean bideratu ezinak).
- ohiko bilera tarteetan lan-batzorde eta lan-taldeen lana koordinatzea.
- Presidentea edo Zuzendari Orokorraren berezko zereginetan aholkularitza ematea.
- bileretako gai-zerrenda prestatzen laguntzea.
- Zuzendaritza-Kontseiluak agintzen dion zereginetan parte hartzea.

Barne-Araudiaren III. atalburuko 13-atalean aipatzen diren arduradunak izango dira gutxienez Talde Iraunkorreko partaideak.

17.atala.- Zuzendaritza-Kontseiluaren lan-batzordeak

Aurreko atalaren helburu berdintsuak izanik, Zuzendaritza-Kontseiluak lan-batzordeak antolatu ahalko ditu. Hauetan, Zuzendaritza-Kontseiluak erabakitzen duen kopuruan, lan eta erabiltzaile bazkideek parte hartu ahalko dute. Gutxienez bi lan-batzorde osatuko dira: Ekonomia-batzordea eta Mantenu eta Zerbitzuen antolaketa-batzordea. Bien buru Zuzendaritza-Kontseiluko Diruzaina eta Mantenu eta Zerbitzuen antolaketa-arduraduna egongo dira.

Batzorde hauetan Zuzendaritza-Kontseilukoak ez diren kideek parte hartu ahalko dute.

18.atala.- Zuzendaritza-Kontseiluaren ordezkartza Gestio-Batzordean

Bestalde, Gestio-Batzordean Kooperatibaren (titularren) partaidetza zuzena eta ordezkartza bermatzeko, baita koordinaketa hobea eskuratzeko ere, Zuzendaritza-Kontseiluak bi guraso ordezkari izango ditu Gestio-Batzordean, honela Batzar Nagusiak zuzenean Barne-Araudiak ezartzen duen prozeduraren bitartez aukeratu duen ordezkari-kopurua osatuz. Zuzendaritza-Kontseiluak bere gain hartuko du ordezkari hauen hautaketa eta Gestio-Batzordeari zein Kooperatibako lan eta erabiltzaile bazkide guztiei jakinaraziko die.

Beren zereginak eta hautaketa era kontuan hartuz, Gestio-Batzordearen iritzia entzun ondoren, Zuzendaritza-Kontseiluak berez ordezkari hauek hautatu eta balio gabetu ahalko ditu. Honelakoetan Gestio-Batzordeari berari eta lan eta erabiltzaile bazkide guztiei erabakiaren berri emango die.

19.atala.- Bateriaezintasunak

Zuzendaritza-Kontseilu eta Gestio-Batzordeko kideak ezin izango dira batera Ikastolako beste edozein ordezkari edo/eta sozial-Organoko bateko kideak (Gurasoen Batzordea, Sozial-Kontseilua edo beste batzuk).

ANDER
DEVNA

IKASTOLA



IV. ATALBURUA.- **ZUZENDARITZA, IZENDAPENA ETA UZTEA.**

20.atala.- Zuzendaritza-taldea

1.- Ikastolako kudeaketa gauzatu ahal izateko Zuzendaritza-taldea eratuko da. Honen osaketan Zuzendariak, Ikasketa-buruek eta Administrari orokorrak parte hartuko dute. Estatutuetan eta Barne-Araudian azaltzen diren ahalmenen arabera, Zuzendaritza-taldea Zuzendaritza-Kontseilua eta Gestio-Batzordearen menpean egongo da. Bere lana behar bezala bideratzeko 1990.urtean Gestio-Batzordeak onarturiko Araudia ere kontuan hartuko dugu.

2.- Bi ikasketa buru egongo dira: bata Haur eta Lehen Heziketan, eta beste Bigarren Heziketan (Derrigorrezkoa eta Batxilergoa). Hautaketa, zereginak eta dedikazioa aipatu 1990.urteko Araudiaren arabera izango da. Beren iraupena Barne-Araudiaren 23.atalak Zuzendariari adierazten diona izango da. Araudiak azaltzen duen prozeduraren ondorioz, beren hautaketa ezinezkoa balitz, Zuzendariak urte batetarako izendapena bideratu ahalko du, bere berrespenerako Gestio-Batzordeari honen berri emango diolarik. Ikasketa buruen zereginak ordainduak izango dira, kopurua Zuzendaritza-Kontseiluak erabakiz. Bere dedikazioa 1990.ko Araudiak adierazitakoa izango da.

3.- Ikastolako Administrari orokorra.- Gure artean ardura hau berria denez, hautaketarako prozedura, iraupena eta dedikazioa Barne-Araudiaren 26-atalean zehaztuko ditugu.

21.atala.- Zuzendari orokorraren hautaketa

Zuzendaritza-Kontseiluak Zuzendari orokorra izendatu/utzarazi ahalko du, erabiltzaile edo/eta lan-bazkideen iniziatibaz.

22.atala.- Hautaketarako prozedura

1.- Lan-bazkideek Ikastolako egungo lan-sailaren hiru hautagai (lan-bazkideak direnak) Zuzendaritza-Kontseiluari aurkeztuko dizkiote.

2.- Aurkezpena egin ondoren, Ikastolako estamentu eta Organoen artean eztabaida eta kontsultarako epea zabalduko da, guztien arteko adostasuna eta akordio zabala bilatuz. Prozesu honetan erabiltzaile-bazkideek lan-bazkideek aurkezturiko proposamenari (hiru hautagaiak) beste hautagai bat gehitu ahalko diote edo/eta eginiko proposamena berretsi, hautagai horien arteko iritzi edo lehentasuna adieraziz. Kontsultarako epea amaitu ondoren, Zuzendaritza-Kontseiluak hautagairik egokiena aukeratuko du. Erabaki honetan Zuzendaritza-Kontseiluko kideen erabateko adostasuna beharrekoa izango da.

3.- Aurkezturiko hautagai-zerrenda egokitzat ez bada jotzen, Zuzendaritza-Kontseiluak bi irtenbide izango ditu:

- Ikastolako ez den kide egokia aukeratzea.
- Ikasturte batetarako ardura gauzatzeko egokiena izan daitekeen lan-bazkidea izendatzea.

4.- Gestio-Batzordeak Zuzendariaren hautaketa berretsi ahalko du. Ez-adostasuna azalduz gero, Zuzendaritza-Kontseiluak ardura gauzatzeko egokiena izan daitekeen pertsona ikasturte batetarako izendatu ahalko du.

23.atala.- Iraupena

Ardura honen iraupena Zuzendari orokorra izendatu duen Zuzendaritza-Kontseiluaren berbera izango da, zera, lau urte. Hortik aurrera Zuzendari orokorra lau urteko epeetan bere zereginetan berretsia izan ahalko da behin eta berriz. Honelakoetan, Zuzendaritza-Kontseiluak bere izendapena berresteko hasierako beharreko gehiengoa eskuratu beharko da.

24.atala.- Kargu-uztea

Zuzendaritza-Kontseiluaren baitan ordezkutzen diren estamentuen edo/eta Ikastolako partaidetza-Organoen inizatibaz Zuzendaritza-Kontseiluak Zuzendari orokorrari kargua utziarazi ahalko dio. Honelakoetan Zuzendaritza-Kontseiluak izendapenean erabilitako gehiengo berbera beharko du.

25.atala.- Betebeharrak

Estatutuen 37.atalak adierazten dituen ahalmenak edo zereginak izango ditu. Hauei 1990.ean Zuzendaritza-Kontseiluak eta Gestio-Batzordeak onarturiko Irakasleriaren Araudiarenak gehituko zaizkio.

26.atala.- Administraria

- 1.- Administrazio, Ekonomia eta Zerbitzu-arloetako funtzionamendurako ardura zuzena du.
- 2.- Zuzendaritzaren menpean dago. Administrazio eta Zerbitzu-arloetako langile guztiak bere ardurapean daude.
- 3.- Arlo hauetako langileen iritzia jakin ondoren, Zuzendari orokorrak aukeratzen du. Geroago Zuzendaritza-Kontseiluak berretsi egiten du. Bere lanaren funtsa teknikoa denez gero, bere lana eta funtzioak mugagabeak izan daitezke.
- 4.- Beren zereginak suposatzen duten ardura eta dedikazioa kontuan hartuz, haiekin bat datorren lansari osagarria jasoko du. Barne Araudia onartua izan ondoren, Zuzendaritza-Kontseiluak ahalik eta lasterren lansaria eta dedikazioa zehaztuko ditu.

27.atala.- Bateriaezintasunak

Zuzendaria, Ikasketa-burua eta Administraria ardurak Kooperatibako Zuzendaritza-Kontseilua, Gestio-Batzordea, Zaintza-Batzordea edo/eta sozial ordezkaritza bideratzen duen Organo bateko kide izatearekin bateraezinak izango dira. Hautaketa-unea dela eta, bazkide bat honelako behin behineko egoeran balego, ahalik eta epe laburrenean zuzendu beharko litzateke. Honen ondorioz, ukiturik dauden kideek Zuzendaritza-taldea edo atal honetan aipatu ditugun edozein Organo berriztatzerakoan ardura bietariko bat aukeratu beharko lukete.

V. ATALBURUA.- **GIZA-DIZIPLINARAKO JAURPIDEA**

28.atala.- Oinarri orokorra

Orokorrean harturik Kooperatibaren Barne-Araudia Estatutuen 4.atalburuaren edukietara mugatuko da (18-21.bitarteko atalak, biak barne). Osagarri gisa, lan-bazkideei, Estatutuen 22-d atalak diotenaren arabera, beren lan/lanbide-jaurpidean, Euskal Elkarte Autonomoko Ikastolen Lan-Hitzarmenaren 7.atalburua ezarriko zaie. aurreikusten ez diren gaitan, egungo legedia ezarriko da (lan-legedia edo/eta kooperatibena).

29.atala.- Hutsegiteak

Bazkideen hutsegiteak arinak, larriak edo oso larriak izango dira, hutsegiteen garrantzia, eragina edo asmoak kontuan hartuz.

Estatutuetan eta Lan-Hitzarmenean jasotzen den hutsegite-zerrenda luzea dela ikusirik, ondorengo bi ataletan ez dugu besterik gehituko. Aurreikusita ez daudenek, jasota daudenenekiko antza aztertuz, kalifikazio berdina berenganatuko dute (arinak, larriak edo oso larriak).

30.atala.- Zigorrak

28 eta 29.ataletan erabilitako irizpideak kontuan hartuz, ezarri beharreko zigorrak (sozial edo lan-zereginak ez betetzeagatik) Estatutuen ataletan edo/eta Lan-Hitzarmenean agertzen direnak izango dira

31.atala.- Zigorrak ezartzeko prozedura

Zigorak ezartzeko prozedurari dagokionez, aldez aurretik aurreko testuekiko bi zehaztasun azaltzen dira:

1.- Sozial-hutsegiteei dagokienez, Estatutuen 20.atalak aurreikusitako Batzorde Arautzailea Zuzendaritza-Kontseiluak izendaturiko hiru kidek osatuko dute, hauetariko bik lan-bazkideak eta bazkide erabiltzaileak ordezkatzeko dituztelarik.

2.- Lan-bazkideek beren zereginetan eginiko ustezko hutsegiteei dagokienez, diziplina-espedientea Kooperatibako Zuzendaritza Orokorrak zabalduko dio, edonola egungo lan-legedia eta Lan-Hitzarmena beteko direlarik.

TEMA 10
DEVENA

IKASTOLA



VI. ATALBURUA.- **GESTIO-BATZORDEA**

32.atala.- Oinarri orokorra

Gestio-Batzordearen eraketa Kooperatibaren Estatutuen 23-2 atalaren garapenaren ondorioz ulertu behar da. Honen bidez, Ikastolaren titularrak (Irakaskuntza-Kooperatiba Bateratzailea) heziketa-titulartasunaren alderdi batzuen kudeaketa ikasle, irakasle, guraso eta pertsonalgo ez-dozentearen ordezkariak osaturiko Organo baten esku uzten du, Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-itunek aurreikusitakoa betez. Ikastolaren titularraren ezaugarriak kontuan hartuz (gurasoak eta langileak), Organo honek Ikastolaren hezkuntza-kudeaketan ere ikasle nagusien eta guraso gehiagoren partaidetza erraztu/bideratu nahi du nagusiki.

33.atala.- Gestio-Batzordearen zereginak

1.- Pertsonalgo Dozentearen Urteko Plana.- Zuzendaritza-taldearen proposamenaz ekainero datorren ikasturteko Pertsonalgo Dozentearen Plana eztabaidatu eta, bidezkoa balitz, onartu egingo da (irakasleriaren adskripzioa, kontratazioak, kontratuen berriztapena, etab.).

Irakasle baten kontratazioaren bat beharrezkoa balitz, Gestio-Batzordeko bi gurasok eta bi irakaslek osaturiko Kontratazio-Batzordea osatuko da. Irakasleen kasuan bi ordezkari horietariko bat kontratazioak hutsunea bete nahi duen ziklo/arloko irakaslea/espezialista izango da. Era berean, gurasoen kasuan, bi horietariko bat hutsunea bete nahi den ziklo edo etapakoa izan dadin saiatuko gara.

Zuzendaritza-taldea Batzorde honen eta kontratazio-prozesuaren partaide izango da (botorik gabe).

Gestio-Batzordeak kontratatu beharreko irakaslearen pedagogia-egokitasunaz erabakiko du. Jarraian honen berri Zuzendaritza-Kontseiluari emango dio, honek lan-arloko kontratazioa gauzatuko duelarik.

2.- Urteko Pedagogia-Planaren onarpena.- Klaustroak eta Zuzendaritza-Taldeak proposaturik, ikasturteko lehen hilabetearen inguruan gauzatuko da.

3.- Urteko Planaren jarraipena.- Ebaluaketa edo hiruhilabeteko ohiko txostenak baloratu ondoren, ebaluaketako emaitzak ikusirik, Urteko Planaren gauzatze-mailaren azterketa egingo da.

Ikasturte-bukaeran prozesua orokorragoa izango da eta azterketa hau datorren ikasturteko Planaren oinarria izango da.

4.- Pedagogia-Aurrekontuaren kudeaketa.- Urteko Planarekin bezala jokatuko da, Zuzendaritza-Taldeak proposaturik. Kooperatibaren Aurrekontua Orokorrarekin bat etorriko da, honek aurreikusten duenera mugatuz.

5.- Zuzendariaren hautaketaren berrespena.- Zuzendari Orokorraren hautaketan Gestio-Batzordearen zeregina Barne-Araudi honen III. atalburuaren aurreikuspenari lotuko zaio.

6.- Informazioa.- Gutxienez urean behin, ikasturteko lehen hiruhilabeteakoan, Kooperatibaren Batzar Nagusian bi gaiei buruzko argibidea emango du: aurreko ikasturteko Txostena eta ikasturte berriko Plana.

Honetaz gain, egoki ikusten duen bakoitzean, Batzorde honek eta Zuzendaritza-Taldeak beren zereginei buruzko argibidea emango dute.

7.- Kooperatibaren Batzar Nagusian partaidetza.- Batzar Nagusiaren gai-zerrenda kontuan hartuz, Zuzendaritza-Kontseiluarekin adosten denaren araberrako partaidetza bideratuko da.

34.atala.- Osaketa

1.- Gurasoen 6 ordezkari eta lan-bazkideen (dozenteak eta ez dozenteak) 6 ordezkari osatuko dute, Zuzendaritza-Taldeak botorik gabe parte hartuko duelarik. Hezkuntza-hitzartuan ezartzen den legedia kontuan hartuz, Kooperatibaren ordezkari eta titular gisa gurasoen bi ordezkari Zuzendaritza-Kontseiluak zuzenean aukeratuko ditu.

Ikasleei dagokienez, Bigarren Heziketa eta Batxilergoko ikasleek dagozkien gaietan 6 ordezkari ere izango dituzte. Ikastola osoan eragiten duten gaietan (adibidez, Urteko Pedagogia Plana, Arlo honetako Aurrekontua, Zuzendariaren berrespena edo beste batzuk), ikasleriaren ordezkariaren balioa 2 botoena izango da.

2.- Kooperatibaren Estatutuak edo Barne-Araudi hau betetzen duten bazkide guztiak hautagaiak izango dira, Estatutuen 31.3 atalean aipatzen direnak ezik. Era berean Bigarren Heziketa eta Batxilergoko ikasleak ere hautagaiak izango dira. Ardura bete behar den epe osorako jarraipen-ikuspegia eskatuko zaie.

3.- Lan-bazkideen ordezkariak dozentek (5 ordezkari) eta ez-dozentek (ordezkari bat) izango dira, estamentu biak ordezkatur. Dozenteen ordezkariak hezkuntza-etapa guztiak besarkatuko ditu: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa. Ziklo eta etapetako dozentek proposatuko dituzte, Klaustroak berretsi egingo dituelarik. Ez-dozenteen ordezkaria talde honek zuzenean proposatuko du.

4.- Gurasoen ordezkariak ere hezkuntza-etapa guztietakoak izango dira. Bi ordezkari Zuzendaritza-Kontseiluak titular gisa aukeratuko ditu, Gobernu-Organotarako gurasoen partaidetza zabalduz eta Organo horietako gurasoen arteko koordinaketa egokia bermatuz. Ordezkari hauek hautatzeko Batzar Nagusiak Ikastolako lan-batzorde edo/eta ordezkotza-organo batean parte hartu izana eta euskararen ezagutza kontuan hartuko ditu, Kooperatibako bazkidetza urte batekoa baino luzeagoa komenigarria dela iritziz.

5.- Bigarren Heziketa eta Batxilergoko ikasleen ordezkariak etapa hauetako ziklo guztiak besarkatuko dituzte, gutxienez Bigarren Heziketaren 2.ziklo eta Batxilergokoak izanik.

6.- Kooperatibaren Batzar Nagusiak hautatzen dituzenean, hiru estamentu hauen ordezkarien baliagarritasuna erabatekoa izango da.

7.- Gestio-Batzordeko kideak beren zereginak bete ahal izateko bi urtetarako aukeratuak izango dira, urtero ordezkariak erdia berrituko delarik. Honelakoetan behin eta berriz hautatu ahal izango dira.

8.- Kudeaketa-epea bukatutakoan, Batzar Nagusiak hautaturiko kide berriak berezko zereginak berenganatu arte, lanean arituko dira. Kide berriak aukeratzearekin batera, estamentu guztien ordezkotza kideak hautatuko dira. Ordezkari titularren bidezko baja emanaz gero, ordezkotza hauen zereginak gelditzen zaien denbora tarterako berenganatu ahalko dituzte.

35.atala.- Hautaketarako prozedura

1.- Hautatu behar diren ordezkariak zehaztu eta Batzar Nagusirako beharreko deialdia gauzatu ondoren, hautagaiak aurkezteko 10 egunetako epea zabalduko da. Hautagaien aurkezpena norberak edo/eta bazkide-talde batek bete ahalko du;

ikasleen kasuan ikasle-talde batek aurkeztu ahalko ditu.

2.- Hautagai-zerrenda bakoitzean beharreko hutsune guztiak betetzeko beste hautagai egongo da, baita ordezkioak egoteko kide batzuk ere.

3.- Ondoren Gestio-Batzordea osatzen duten estamentuetan, honen eztabaida era proposamenak egin ahal izateko, zazpi (gutxienez) eta hamar (gehienez) egun bitarteko epea zabalduko da. Epe hau bete eta gero, estamentu guztiek beren hautagaiak aukeratuko dituzte.

4.- Ikasleen kasuan, Bigarren Heziketaren 2.zikloan eta Batxilergoan mailaka ordezkari bana hautatuko dituzte, hots, lau ordezkari; bozketetan ordezkari hauek gehiengo eskuratu beharko dute. Gainontzeko ordezkariak, mailako bozketetan hautatuak izan ez diren hautagaien artean, etapa hauetako ikasleen batzarrak aukeratuko ditu.

5.- Lan-bazkide dozenteen ordezkariak ziklo edo/eta etapetan proposatuko dira. Honela beharreko 5 kideetarik 4 proposatu ahalko dira. Bosgarrena berezko ziklo edo etapan proposatuak zain ez direnetatik Klaustroak zuzeneko bozketan hautatuko du. Ez dozenteen ordezkaria talde honek dagokion bilera batean proposatuko du. Lan-bazkideen osoko ordezkariak hauen batzarrak berretsi ahalko du.

6.- Gurasoen kasuan, talde handia izanik, bere hautaketak berezitasun batzuk izango ditu. Hautagaiak aurkeztu ondoren, Zuzendaritza-Kontseiluak, Ikastolaren titular gisa, gai honen inguruan kontsulta, eztabaida eta proposamenak egiteko epea zabalduko du. Era honetara, proposatu diren hautagaiekin batera, Batzar Nagusiak hautatu behar duen hautagai zerrenda edo zerrendak kudeatuko ditu (baldintza berdinetan). Xede honetarako 10 eguneko epea izango du. Zeregin honetan adostasun zabala eskuratzea helburu eta iparra izan behar dira.

7.- Gestio-Batzorderako ordezkariak hautatzeko bozketak guztiak isilpekoak izango dira.

8.- Kooperatibaren Batzar Nagusiak estamentu guztiek proposaturiko ordezkariak hautatuko ditu. Honela jokatuko balu, Organo honetako kide izateko, hiru estamentu hauen ordezkarien baliagarritasuna erabatekoa litzateke.

36.atala.- Ardura-banaketa

1.- Bere jardunbiderako Gestio-Batzordeak, aukeratua izan ondorengo lehen bileran, Idazkaria eta Koordinatzailea hautatuko ditu. Arduradun berrien hautaketa gauzatu arte aurreko Gestio-Batzordekoak izango dira edo

lan-bazkide/bazkide erabiltzaileetarik kide nagusia edo gazteena.

2.- Koordinatzailearen zereginak.- Batzorde honen bilerak zuzendu, bileretarako deiak egin, premiazko erabaki-hartzeak koordinatu eta ez-ohiko bileretarako deiak egingo ditu. Beharrezkoa balitz ordezkari arduraduna egon liteke, Barna-Araudi honek leporatzen dizkion zereginak betez.

3.- Idazkariaren zereginak.- Bilera-agiriak egin eta egiaztatu (norbaitek hala eskatuko balio), artxiboa eta Gestio-Batzordeak erabiltzen duen agiritza eguneratu egingo ditu.

4.- Koordinatzaile eta Idazkaritza ardurak txandaka lan-bazkide eta bazkide erabiltzaileen ordezkarien (gurasoak) esku egongo dira.

5.- Gestio-Batzordeak utzi edo/eta premiazko erabakiak hartu ahal izateko Gestio-Batzorde honen Talde Koordinatzailea egon ahalko da. Talde honen osaketa hiru estamentuen ordezkari bana egongo da, Koordinatzaileak, Idazkariak eta Zuzendariak derrigorrez parte hartuko dutelarik.

37.atala.- Jarduera

1.- Gestio-Batzordea ohiko jarduera betetzeko hilabetero gutxienez bilduko da. Koordinatzaileak, Zuzendaritza-Taldeak edo estamentu guztietako ordezkarien herenak deituta (gurasoak, lan-bazkideak eta ikasleak), ez ohiko bilerak egin ahalko ditu.

2.- Harturiko erabakiak baliogarriak izan daitezen kide-kopuru erdiak baino gehiagok bileran parte hartu beharko du.

3.- Erabakiak hartzeko prozedura

- Arrunta, bertan egoniko ordezkarien adostasunez. Adostasuna eskuratzen ez bada, bozketa dela medio erabakiak hartuko dira, honelakoetan erabateko gehiengoa beharrezkoa izango delarik. Erabaki batzuk hartzeko (Pertsonalgo dozentearen Urteko Plana eta Zuzendariaren berrespena) ordezkarien botoen bi herenak beharko dira.
- Premiazkoa. Datozen 24 orduetan hartu beharreko erabakiak Zuzendariak hartu ahalko ditu, nork Gestio-Batzordearen lehen bileran horren berri emango baitu. Beste erabaki batzuk (24 eta 72 ordu bitartekoak) Talde Koordinatzaileak hartuko ditu. Gainontzekoak ez ohiko bilera baten bidez erabakiko dira.

4.- Bilera-agiriak egitea Idazkariaren ardura izango da edo, hau ez balego, gainontzeko kideek hautaturiko kide batena.

5.- Batzorde honetako kideek ordezkatzan duten talde eta estamentuekiko etengabeko harremanak izango dituzte. Gurasoen kasuan, erreferentziako taldea Gurasoen Batzordea izango da.

ANDER
DEVNA

IKASTOLA



VII. ATALBURUA.- **GURASOEN BATZORDEA**

38.atala.- Oinarrizko kontzepzioa

Gurasoek Ikastolaren barruan izan behar duten partaidetzako dinamikaz arduratuko den Organoa da. Ikastolako gela-ordezkarri guztiez osatua dago (ordezkari hauek gela edo mailako gurasoek zuzenean ohiko bileretan aukeratuko dituzte). Beren ohiko jardueran gelako gurasoekin, tutorearekin, Zuzendaritza-taldearekin edo/eta dagokion Organoarekin harreman zuzenak izango dituzte.

39.atala.- Zereginak

- 1.- Gurasoengandik edozein iradokizun edo kezka kolektiboa jaso beren artean tratatua izateko, kasuan kasu Zuzendaritza-Taldea edo/eta dagokion Ikastolako Organoaren ezagupenean jarritz.
- 2.- Zuzendari Orokorra izendatzerakoan Zuzendaritza-Kontseiluari aholkua eman.
- 3.- Eskolaz Kanpoko ihardueretan eta kultur eta kirol-programaren garapenean parte hartu.
- 4.- Kontsultatua izango da urteko ikas-egutegiari, urteko programaren ziklokako garapenari, ikasketa-arauei, berreskurapenei eta ikasleen etxerako lanei buruz.
- 5.-Elkarbizitzarako arauak buruz kontsultatua izan.
- 6.- Zuzendaritza-Kontseiluak kontsultatua izan obren programazioari, instalazioei, altzariei eta prebentziozko mantenimenduari eta konponketei buruz, eta orohar Ikastolako garbiketa, botikina, etab. bezalako barne-zerbitzu lagungarriei buruz ere.

7.- Ikastolaren barne-zerbitzu lagungarrien, hala nola, garraioaren eta jantokiaren programazioan kontsultatua izan.

8.- Ikastolako gurasoengana zuzenduriko jarduerak antolatu ahalko ditu (berezko zereginak betez), edo/eta irakasleengana eta ikasleengana zuzendutakoak estamentu hauen ordezkariekin bat eginik.

9.- Gestio-Batzordea eta Zuzendaritza-Kontseiluarekin batera ihardungo du bi Organo hauek berritzeko hauteskundeetan, zeren eta, gurasoen taldea oso ugaria izatean, arazo bereziak izaten baitira Organo hauetarako kideak hautatzeko garaian.

40.atala.- Hautaketarako prozedura

1.- Hautaketa beharrekoa denean, dagokion gela edo mailako bilerarako gai-zerrendan agertu beharko da. Horretarako tutoreak deia burutu baino lehenago ezagut dezan, funtzioetan dabilen gelako ordezkariak bere gelako tutoreari jakinaraziko dio.

2.- Gai-zerrendaren gai honetara helduta, ordezkaria hautatua izango da. Bertan dauden gurasoen % 10ak honela eskatuko balu, isilpeko bozketa burutuko litzateke.

3.- Iraupena arduran bi urtekoa izango da. Maila bakoitzeko ordezkaritza (mailako bi gela egoten direnez) urtero bere erdian berritu ahalko da, maila bakoitzean ordezkaritza koordinatuagoa bermatuz.

41.atala.- Jokaera

1.- Hilean behin Zuzendaritza-Taldearekin edo/eta Ikastolako Gobernu-Organotako ordezkariekin bilduko da, dagozkien gaiak tratatuz eta bideratuz.

2.- Berez edo gela/mailako gurasoekin hauen inizatiba/iradokizun kolektiboa egon edo/eta gela-ordezkariaren inizatibaz bildu ahalko da. Honelakoetan Zuzendaritza-taldearen ezagupenean jarriko da, honela balegokio Zuzendaritza-taldearen parte hartzea eskatuz.

3.- Gela edo mailako inizatiba/iradokizuna izanez gero, non gela/mailako irakaslea ukiturik suertatzen baita, gela/mailako irakaslea edo tutorearekin harremanetan jarriko da, inizatiba edo iradokizunaren helburua bideratuz.

Maila honetan adostasuna ezinezkoa balitz, Ikastolako Zuzendaritza-taldea edo/eta dagokion Organora (Zuzendaritza-Kontseilua edo Gestio-Batzordea) jo ahalko du.

ANDER
DEVNA

IKASTOLA



Lehen xedapen gehigarria

Lan-bazkideen partaidetza Gobernu-Organoean koordinatuagoa izan dadin (Zuzendaritza-Kontseilua eta Gestio-Batzordea), lan-mota honen ordezkari organo bietan bakarra izango da, bere iraupena lau urtekoa izanik, Barne-Araudi honek eta Estatutuek aurreikusten dituzten kargu uzteak izan ezik. Egoera honek Ikastolako Organo hauekiko kudeaketa eta ordezkari jardueretan oztoporik sortaraz ez dezan, behar bezalako neurriak hartuko dira.

Bigarren xedapen gehigarria

Barne-Araudiaren aldaketarako Estatutuena egiteko prozedura berdina erabiliko da, bietan eman daitezkeen aldatuen onarpena Batzar Nagusiaren ardura baita (Kooperatibaren Estatutuen 24.3 i atala), aldatetarako proposamena Zuzendaritza-Kontseiluaren ardura delarik (Estatutuen 30.2 h atala).

Lehen eranskina.- Administrariaren zereginak

Ardura honen berezko zereginak honako hauek dira:

- * Izaera ekonomiko, finantziero, eta zerbitzu-antolaketa gaiei buruz arduratzea, baita eginbehar administratiboetaz ere, Pedagogia Arloaren funtzio eta betebeharrekin harremanetan egonez.
- * Ikastolako zerbitzu lagungarriak programatzen eta horien exekutapen ordenatuan laguntzea, zeregin hauetaz arduratuz.
- * Ikastolaren ondarea eguneratua eduki, bere inbentario eta oinarrizko dokumentazio egokiarekin.
- * Kooperatibaren Aurrekontua prestatu eta gauzatu ahal izateko irizpide teknikoa ezartzea.
- * Sarrera eta gastuekin, kutxa eta bankuekin, erosketa eta biltegiekin, diruzaintza eta bere aurreikuspenei loturiko planak egin eta burutzea.
- * Ikasleen matrikula eta espedienteekin, pertsonalgoaren alta eta bajekin, nomina eta aseguru sozialekin, zerga, etab.ekin zerikusia duten eginkizun ekonomiko-administratiboei erantzutea.
- * Zuzendaritza-Kontseilu eta Taldearekiko lotura zuzena izango du, azken talde honen partaide izanik. Halaber, Ekonomia-Batzordea eta bere Arloan lan egin duen pertsonalgoarekin harreman iraunkorrak izango ditu, Ikastolako kideei bere Arloarekin zerikusirik duen gai guztietan atenditzeko prest egonez.